


MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Eugène
Goyheneche**



MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA

Eugène
Goyheneche



1989



ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO
IKASKUNTZA

Egilea: **Auteur: Jéan-Claude Larronde**



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Sculpture en bronze de Remigio Mendiburu

LARRONDE, Jéan-Claude

Eugène Goyheneche / Jéan-Claude Larronde [itzulpena: Luis Manterola]. - Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995. - 118 p. : il. 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Prix Manuel Lekuona; 7). - Texto euskera - francés. - Premio Manuel Lekuona 1989
ISBN: 84-87471-85-4

1. Eugène Goyheneche - biografia 2. Bibliografia - Eugène Goyheneche
I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernuua, Eusko Jaurlaritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-87471-85-4
Depósito Legal: S.S.-986-94
Gertu Inprimategia. Oñati.

Datu biografikoak	5
Données biographiques	43
Une gogoangarriak	83
Moments mémorables	83
Bibliografia	99



Historia eta Politika

Sei urte iragan eta gero, Eugène Goyheneche desagertzeak euskal ikaskuntzetan utzitako hutsunea gaurko egunean orduko bezain handia da; nahiz eta, egia da, historia ikasketak aurrerabide handia egiten ari diren, batez ere Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako Unibertsitate publikoetan zein pribatuetan diharduten irakasle ohargarriek esker. Urte oroz, artean gutxi ezagunak ziren gure historia kolektiboaren zenbait alderdi erakusten dituzten txostenak eta tesiak argitara ematen dira. Alabaina, XX. mende amaiera honetan zein historialarik hitz egiten ahal digu –Eugène Goyhenechek egiten zuen zientzia eta aisetasun berarekin– hala Osozelhaiko Harpeez nola Erdi Aroko Iruñeaz edo Bizkaiko industria iraultzaz? Izan ere, Euskal Herriaz zuen ezagutza benetan entziklopedikoa zen eta garai guztiak eta probintzia guztiak besarkatzen zituen (eta gehiago, Hego Amerikarako edo Californiarako euskal emigrazioari buruzko lanak kontuan hartuz gero).

Euskal Herriaren historiari halako ikuspegi sakona zuen historialari baten aurrean ez gara, esan gabe doa, mintzatzeko egokienak.

Ez gara, ezta ere, gizonaren kalitate aberatsak oroitarazteko egokienak; ez dugu –ez eta gogorik horretarako– behar bezalako urruntasuna edo distantzia gure laguna zenari buruzko iritzi “objektiboa” (zentzurik ote du hitz honek?) emateko.

Izan ere, Eugène Goyheneche 70. urteetako hasieran ezagutu genuen. 1972an Sabino Arana Goiriri buruzko gure tesia agertu zenean iruzkin adiskidetsu eta onginahiz betea egin zuen Musée Basque-ko Boletinean. Baina batez ere haren bizitzaren azken bost edo sei urteetan izan genuen hobeto ezagutzeko eta estimatzeko pribilegioa. 1987an Ipar Euskal Herriko 30. urteetako mugimendu eskualerrizalea, politikaren alorrean Iparraldean egiten zen lehen nortasun erreibindikazioa aztertzen hasi ginen. Haren ekintzaile nagusietariko bat izan zenak –oso gaztea garai hartan– harrera beroa egin zion ikerketa berri honi eta bere biblioteka bikainaren zein artxibo aberatsen ateak ireki zizkigun.

Ez zen hura, ordea, inolako tratamendu berezirik: aspaldidanik lagundu

eta sustatzen baitzituen laguntza eske zetozen ikasleak oro; bere ezagupenak ahalik eta gehien zabaltzen eta bere jakinduria partekatzen saiatzen zen. Mikel Duvertek idatzia duenez, XX. mendeko pertsonaia giltzari diren beste bi jakintsurekin, Jose Migel Barandiaran eta Pierre Lafitte kanonigoarekin batera oroitzen zituela: "Eta gizon hauek maisuak dira, zeren eta berez aberatsak badira ere, areago baitira berena partekatzen dutenean".

Jendeari pazientziatzat entzuten zekien eta Euskal Herria ukitzen zuen guztiak haren interesa erakartzen zuen, adi eta suhar jarraitzen zuela; horrek bide ematen zion gero modu eraginkorrez orientatu eta kontseilatu ahal izateko: izan ere, erreferentzia, ezinbesteko iraganbide zen Euskal Herriari buruzko historia lan edo ikerketaren bati ekiten zion edonorentzat, eta haren atsegin handiena gauza guztien ginetik maite zuen "eusko lur" honen kultura ondarea aberats zezaketen ikerleei laguntzea zen. Azken batez, ez ote zituen garatu nahi solaskide guztiengan historialariak ikerturiko gaiarekin lotzen dituen kalitate nagusiak: "bihotza eta sinpatiarene dohaina", haren hitzen arabera?

Euskal Herriko historialari handien artean Eugène Goyhenechek izango duen tokia, nolana den ere, berezia izango da.

Ez zen, alabaina, Erdi Aroaren ikerle nabarmena besterik izan; halaber, gazte-gaztetatik bere herrialdearen zerbitzuko militante izan zen eta militante jarduerak guztiz modu naturalean gaur egungo historiaz interesatzera eramane zuen. Orobat, militante gisa historiaren ezagutza egokiaren premia zuen kontzientziak Euskal Herriaren iragana ikuspegi orokorrez besarkatzera eramane zuen, oraina atzemane saiatzeko eta, ahal den neurrian, etorkizunerako lerro nagusiak begiztatzeko.

Bazekien historia noraino den guztiz funtsezkoa euskal nortasunaren iraupenerako. Euskara euskal herriaren ezaugarri nagusia bada, historia haren oroimena da; ez ote da historia bere nortasunaren kontzientzia emane diona, bere naziotasunaren kontzientzia? Hori berori frogatzen saiatuko da Eugène Goyheneche bere bizitza guztian.

1. M. Duvert: *Gure Goyheneche Jaun maitagarria. Hommage à Ustaritz le 16 Septembre 1989 (I)*, Herria, 2021. zk., 1989ko Irailaren 28koa.

2. Eugène Goyheneche: *Philippe Veyrin, historien*, Gure Herria, 1962. 4. zk., 205 or.

Familia ingurunea. Uztariztar gaztea.

E

ugène Goyheneche Uztaritzen (Lapurdi) sortu zen 1915eko ekainaren 19an; Edmond Goyheneche eta Marie Farnièren semea zen; gurasoek beste alaba gazteago bat izan zuten, Emita.


Haren aitak Iparraldean klasikoa den karrera bikoitza egin zuen, mediku eta politikoa ere alegia. 45 urtez (1919-1964), kendu ezinezko kontseilari jenerala izan zen Uztaritzeko kantonamenduan eta euskal giro kontserbadoreetan adiskide asko zituen.

Eugène Goyhenecheren haurtzaroko urteetan (1915etik 1930era), Uztaritzek herri burges aberatsa ematen zuen, "amerikanuek" bertaraturiko dirutzak halako oparotasun itxura –engainagarria segurki– ematen baitzion herriari.

1789ko Frantziako Iraultzak Bailia Epaitegia eta Lapurdiko Biltzarra kendu zizkion Uztaritzeri. Halaber, ekonomiaren aldetik Iraultzak pobretu egin zuen herria, politikoki gabetua geratzen zen bitartean. Krisi larri honek Mundu Berrirako exodoa azkartu zuen XIX. mendearen hasieran eta uztariztar anitzek XIX. mendeko amerikar epopeian esku hartu zuten.

1850etik Uztaritzeko "amerikanuek" eraikuntza handiak eginarazi zituzten sorterrian; eraikuntza horiek, ia beti haundi-nabarmenak, hala-holako arkitektura-gustu baten testigantza ematen bazuten ere, eraikuntza horiek bertan izateak alderdi nabar ikusgarria ematen zion Lapurdiko herri hari.

Bi mundu gerren arteko urteetan (1919-1939), bai Uztaritze eta bai Iparralde guztiaren gainean ezarri zuen bere "diktadura morala" Jean Ibarregaray diputatuak, eskuin tradizionalista eta katolikoaren balioak beretuz, bizitza politiko guztiaren jabe egin baitzen. Uztaritzen erlijioaren praktika handia zen eta gainera garrantzizko irakasgune bilakatu zen 1927tik aurrera, bertan San Frantzisko Xabierren Apaizgaitegi Txikia ireki baitzen.



Giro honetan, herriska euskaldun baketsu, katoliko eta kontserbadore honetan hasi zituen ikasketak herriko oinarritzko eskolan.

Zazpigarren mailatik aurrera, alabaina, Baionako Espainia kalean zegoen Saint-Louis-de-Gonzague ikastetxeara joaten hasi zen (50 urte lehenago Sabino Arana Goirik bi ikasturte eman zituen eskola berean).

Bertan burutu zituen batxilergorainoko bigarren mailako ikasketak, bertan bazkalduz eta arrats guztietan Uztaritzera autobusez itzultzen zela.

Saint-Louis-de-Gonzague ikastetxeko aukietan harrapatu zuen "historiaren deabrua" dei dezakegun horrek. Topaketa erabakiorra filosofia klasean gertatuko zen, 1931-1932 ikasturtean. Jean-Pierre Urricarriet, apaizgaia, Aldudekoa sortzez (Nafarroa Beherea), artean 26 urte zituena, ikasketa begiralea zen ikastetxean; intelektual argia, euskal historiari guztiz atxikia, izpiritu independentea, "abertzaletasunaren eta erregezaletasun Maurras-zalearen nahastura bitxia"³, gertakariak abian doazen Hego Euskal Herriko bizitza politikoa gertutik segitzen duena, Primo de Riveraren diktaduraren ondoren Euzko Alderdi Jeltzaleak lehen arrakasta publikoak lortzen dituen garaian.

Luze gabe, irakaslearen eta hamar urte gazteago den ikaslearen artean elkarrizketa sutsuak abiatzen dira: ikastetxeko ikastorduetan, oharrak trukatzan dituzte eta eztabaidak sortzen dira. Garaitu hartan Eugène Goyhenechek Euskal Herriko historiari duen ezagutza sakontzeko premia sentitzen du; garai hartan, orobat, bere bizitza guztia sakonki markatuko duen mugimendu politikoa batekin harremanetan sartzen da.

3. Eugène Goyhenecharen testigantza: Uztaritze, 1987ko uztailak 23 .

Euskal abertzaletasunaren aurkikuntza

zan ere euskaldunentzat, duela denbora gutxi arte beren herrien hizkuntza eta historia eskoletan irakatsi ez zaien beste "gutxiengo nazional" batzuetako kideentzat bezala, "aurkikuntza" hitz egin beharra dago.

Irakaskuntza ofizialak herriko hizkuntza eta historia irakasteari uko egiteaz gainera, zenbaitetan, desitxuratu edo erabat izkutatu egiten zituzten biak. Bertakoak beren sustraietatik erauztea zen helburua; jendea egiten zitzaion okerkeriaz, bere nortasunaren lapurketaz ohartzen zenean –bretoinei dagokienez Morvan Lebesquek hain ongi adierazia duenez⁴–, harrimena eta ezin sinetsizko bidegabekeria sentitu ohi zuten.

Azkar asko, haserretik eta nahasmenetik konpromezura pasatzen zen. Eugène Goyheneche prozesu horren adibide kunplituia dugu.

1931 eta 1932 (berak 16 eta 17 urte zituen orduan) euskal aberria eta abertzaletasuna aurkitu zitueneko urteak dira.

1932ko uztailean, José de Ariztimuño, *Aitzol* ahaztezina, ezagutu zuen Txistularien Biltzarraren kariaz, Baionako lehen Jaietan. Harez gero, E.A.J.ren ideologia estuki bereturik, alderdiaren mitinetan esku hartuko zuen, bai eta haren egunkarietan –Donostiako *El día* eta Bilboko *Euzkadi*– idatziko zuen. Adiskidetasun lokarriz lotu zen alderdiko militante askorekin, bereziki Bilboko *Juventud Vasca - Euzko Gastedija* gazteriarren organizazio indartsuaren kide zenbaitekin.

1932ko udazkenetik Parisen ikasle izango zen; nolana ere,

4. Morvan Lebesque: *Comment peut-on être breton? Essai sur la démocratie française*, Editions du Seuil, 1970.

Donibane-Lohizunen eta Pierre Lafitte apaizaren inguruan lehen bilerak egindako Iparraldeko militante eskualerrizaleekin harreman estuak izaten jarraitu zuen.

Bestalde, unibertsitateko opor guztiak Uztaritzen pasatzen zituen. *Aintzina* hilabetekariaren sorrerarekin zerikusi zuzena izan zuen; mugimendu eskualerrizalearen agerpidea zen aldizkariaren lehen zenbakia 1934ko urrian kaleratu zuten. Iparraldeko lagunak ziren: Jean-Pierre Urricarriet, goian aipaturikoa; Jacques Mestelan de Lahonce; Pierra Amoçain, 1934ko amaieran Txilera erbesteratu behar izan zuena, bai eta *Pintxin*, Michel Diharce, *Iratzeder* olerkariaren anaia nagusia. *Eskualzaleen Biltzarra* elkartearen urteko batzar nagusiaren kariaz –Luhuson 1933ko irailaren 14an– egin zuen mintzaldia bereziki ohartua izan zen.

Hala eta guztiz, Euskal Herriko jarduera haren militante lanaren alderdi bat besterik ez da. Izan ere, bigarren mundu gerraren aurreko urteetan, haren jarduera gehienbat Parisen gauzatu zen.

Parisko ikasketa urteak

Frantziako hiriburuan militantzia-jarduera zabala burutu zuen Eugène Goyhenechek: euskal ekintza jakina, baina baita mugimendu federalistarekiko harremanak eta beste gutxiengo nazionaletako ekintzaileekikoak, bretoiekin batez ere. Denborarik gehiena –askoz ere– euskal ekintza-jarduerari ematen zion; Euskal Herriko historia sakonki aztertu zuen eta ezagupen bereganatu berri haiek berehala azaltzen zizkien hitzaldi askoren bidez lagun euskaldunei zein bretoiei.

Euskal Herriko historiari buruzko ezagutza gero eta zehatzagoa bazuen ere, haren unibertsitate ikasketak aski nahasiak ziren –gutxiena esateagatik–: nola izan zitekeen bestela norabide guztietara barreiatzen zen gehiegizko jarduera harekin? 30. urte haietan berariaz uko egin zion nabarmenkiro distiratsua izan zitekeen unibertsitate karrerari. Koldo Mitxelenak –Eugène Goyheneche Euskal Herriko Unibertsitatean *Honoris Causa* Doktore hartzerakoan– puntu hori nabarmenduko zuen, gorazarre eginez: militante batek beste bati egindako omenaldia!

Horrenbestez, Quartier Latin-eko bihotzean, Gay Lussac kaleko hotel txiki bateko gelan bizi zela, Guynemer kaleko Bossuet eskolan ikasketa arduraduna izan zen bi ikasturtetan (1933-1935). Bertan hiriburua inarrosi zuten gertakarien lekuko pribilegiatua izan zen: 1934ko otsailaren 6a, Herri Frontearen nagusitasuna, Espainiako gerra zibilaren ondorioak, Munich eta are Alemaniaren aurkako gerra aldarrikapena 1939ko irailean.

Ikasketak bigarren plano batera igaro ziren: Zuzenbide Fakultatean saio bat egin ondoren Sorbonan eman zuen izena Historia Lizentziarako. Alabaina, Parisera iritxi eta bost urtera "zintzilikatu" beharko zuen goi ikasketako lehen diploma: "Erdi Aroko Historia" 1937ko urrian; gero, 1938ko ekainean "Literatura Klasikoak" eta urte bereko azaroan "Historia Modernoa eta Gaur egungo Historia" lorturik, Ecole des Chartes ospetsuan sartu zen.

Sorbonan eta Ecole des Chartes delakoan, zenbait irakasle handik sakonki markatu zuten: lehenik eta behin, Louis Halphen (1880-1950) Erdi

Aroko espezialista, 1934tik Letretako Fakultatean irakasle zena eta *Introduction à l'Histoire* (Paris, PUF, 1946) liburuaren egilea. Irakasle horrek zioenez, "Historialari ona aldi guztietakoa eta herrialde guztietakoa da hurrenez hurren"; esamolde hori Fénélonen harako "Historialariak ez du inoizko aldikoa ez inongo herrikoa izan behar" hura baino gustokoagoa zuen. Gero, Charles Samaran (1879-1982) irakasle entzutetsua, 1933tik aurrera Ecole des Chartesen izan zena eta Frantziako Artxiboetako zuzendaria. Eta nola ez aipa haren laguna zen Elie Lambert (1888-1961) arte historialaria⁵ eta Georges Lacombe (1879-1947), haren "irakasle sokratikoa euskal zientzietan".

1933ko otsailean, *Eskual Ikasleen Biltzarraren* batzar eratzailean Lehendakari izendatu zuten. Parisko EIB elkarteak Bilbon egoitza zuen *Euzko Ikasle Batza* izeneko ikasle euskaldunen federazioaren barne zegoen; haren estatutuen arabera, joera politikorik gabekoa bazen ere, "betiere egungo Euskal Pizkundearen mugimenduarekin elkartuko da"; 1933ko maiatzean, egoitza Parisko Club de Pelote Basque delakoa zegoen Cavalerie kalera, 7. solairura aldatu zuen, hiriburuko trinketea kokatzen zen tokira alegia. *Euzkadi* egunkarian ikasleei zuzenduriko atalean, *Ikasle Ingoskiya* izenburukoan, zenbait artikulua idatzi zituen Eugène Goyhenechek, Parisko euskal ikasleen ekintzen berri emanez.

1933. urtean, halaber, *Eskualzaleen Biltzarra* elkarteak bere Parisko Sekzioa sortu zuen eta ondoko urteko urtarrilean, VI. barrutiko Dragon kaleko 3. zenbakian finkatu zen, Saint-Germain-des-Près-etik hurbil, non eguneroko bulegoa jarri zuten; 30. urteetan ideia euskaltzaleen aldeko propaganda Dragon kaleko lokal honetatik sortuko zen; jakina, uztariztar gazteak esku hartu zuen egiteko hartan.

Frantziako hiriburuko euskaldunen koloniaren bizitzan garrantzizkoa izan zen beste gertakari bat: 1934tik aurrera *Eskualzaleen Biltzarraren* ardurapean Parisko sekzioak *Elgar – Journal des Basques de Paris* agerkaria kaleratzen hasi zen; Paul de Rocca-Serra (*Legarralde*) eta Carlos d'Orcasberro haren lehengusua argitalpenaren benetako giltzarri izan ziren eta hilabetekari kaleratu nahi bazen ere, oso irregularra izan zen (azken alea: 10. zk., 1936ko ekaina). Eugène Goyhenechek artikulua batzuk idatzi zituen


5. Eugène Goyheneche: "L'oeuvre de M. Elie Lambert et l'Histoire basque", Gure Herria, 1959, 6. zk., 341-349 orr.

Elgar hartan baina ez zetorren guztiz bat agerkariaren ideologiarekin, zeren eta abertzaletasunarekiko begikotasuna azaltzen bazuen ere, oso moderatua eta kontserbadorea baitzen, pertsona helduek edo adinekoek sortua eta pentsatua, ideien kontuan eskualerrizale gazteen ideietatik guztiz urrun zegoena.

Mugimendu federalistaren barneko ekintza Euskal Herriaren aldeko ekintzaren ezinbesteko osagaia zen: halakoa zen Eugène Goyhenecheren sentimendua. Hala, *Charles Hiriarte* ezizenez Foyer d'Etudes Fédéralistes (Ikasketa Federalisten Zentrua, F.E.F.) mugimenduko Idazkari Nagusi bihurtu zen 1934ko amaieran; mugimenduak *Le Fédéraliste* aldizkaria ateratzen zuen eta 1934an haren egoitza VI. barrutiko Monsieur le Prince kalean zegoen, Charles Pégyuren semea zen Marcel Pégyuren liburudendan. 1935eko otsailean mugimendu horrek *Les Patries de France* (Frantziako aberriak) izenburuko hilabetekaria kaleratu zuen; *Charles Hiriarte* erredakzio-burua zuen eta bizitza laburrekoa izan zen. 1936tik aurrera, bretoi ekintzaileek berriro hartu zuten ideia eta, hurrenez hurren, *Bulletin des Minorités Nationales en France* (Frantziako Gutxiengo Nazionalen Boletina) eta gero *Peuples et Frontières* (Herriak eta Mugak) izenburuko aldizkariak argitaratu zituzten.

Frantziako hiriburuan emandako urteetan, Eugène Goyhenechek harreman anitz izan zituen beste nazio txikitako ekintzaileekin; nolabait euskal mugimenduaren kanpo harremanetarako ordezkari ofiziosoa zen.

Dudarik gabe, harreman gehienak eta iraunkorrenak bretoi ekintzaileekin izan zituen, Bretainiako Alderdi Abertzaleko (Parti National Breton, P.N.B.) kide edo gogaideekin; izan ere, Parisen finkatu zirenetik P.N.B.ko sekzioarekin jarri zen harremanetan (garaiko abertzale bretoiak argitaratzen zuten aldizkariaren izenez ezagunak ziren, *Breiz Atao* - Bretainia beti). Adiskidetasunezko lotura sendoa izan zuen Yves Delaporte, P.N.B.ko kanpo harremanetarako arduradunarekin (eta Raymond Delaporteren anaia, 1940ko abendutik P.N.B.ko Lehendakaria izan zena), bai eta Yann Fouere, *Cercle d'Etudes Bretonnes et Celtiques* elkarteko buruarekin (Pariseko ikasle bretoien elkargo honek, Cité Universitaire-ko Pavillon Central-ean zuen egoitza, XIV. barrutiko Boulevard Jourdan-en). Orobat, Jean Marie Gantois buru zuten flamandar abertzaleak aurkitu zituen, bai eta Ukrainako abertzaleak ere.



Nolanahi ere, 1936ko Espainiako gerra zibila zela eta, ekintza eta militantzia gizonak bere benetako gaitasunaren neurria agertuko zuen.

Espainiako gerra zibila

1

1936-1939 urteetan, Parisen zegoen Eugène Goyheneche Euzkadiko Gobernuak Frantziako hiriburuan zuen Ordezkaritzaren zerbitzuan jarri zen erabat.

1936ko udazkenetik, Euzko Jaurlaritzak lehen mailako garrantzia ematen zion Frantziari, eta bereziki Parisi, bere nazioarteko estrategian.

Euzkaditik ikusia, 30. urteetako Frantziak mendebaleko Europako estaturik indartsuena ematen zuen; Euzko Jaurlaritza eratu zenetik, haren ordezkari guztiek, erbestera bidaltzen zituen aparteko mezulari guztiek Frantziatik igaro behar zuten, eta askotan Paristik, noranahi zihoazela. Hala berean, Paris kristau demokrazia liberal eta humanista baten eremua zen eta Euzkadiko Gobernuaren alde eta Franco Jeneralaren aurka jarria zena, beroni Hitler-en eta Mussolini-ren errejimeneak laguntza zekarkioten eta kristau demokrazia gorrotatzen zuten.

1936ko udazkenean, Euzkadiko Gobernuak Parisen Ordezkaritza irekitzea erabaki zuen, Rafael Picavea *Alcibarren* ardurapean; berehala, erredakzio-talde txiki bat eratu zen eta 1936ko azaroaren 29an *Euzko Deya* agerkariaren lehen alea argitaratu zen; aldizkari hau 1940ko maiatzera arte agertuko zen, alemanen erasoak haren zabalkundea gerarazi arte alegia.

Eugène Goyhenecheren ekintzaile jarduera azkarra ezin bereiz daiteke historia ikasketetatik: 1936-37an, berak *Euzko Deyako* artikulu anitzetan adierazi zuen bezala (maiz *Jean Hiriart* ezizenez sinatuak), Euzkadiko Gobernuak, euskal herriaren balio demokratikoak gauzatzen zituena, Herri Frontearen eta Espainiako Errepublikaren indarren aldean kokatu zen, Franco jeneralaren eta matxinatuen aurrean. Iparraldeko bizitza politikoa jaun eta jabe ziren eskuinaren eta apaiz kontserbadoreen iritzien aurka egin beharra zegoen bereziki, horiek ezin baitzuten Hego Euskal Herriko abertzaleen jarrera ulertu, ez eta nahi ere: halabeharrak hartaraturik, euskaldunak komunisten alde berean zeuden eta.

Euzkadiko Ordezkaritzan eta *Euzko Deyan* lan sail handia eskaini zitzaion. Frantsesera itzultzen zuen; Aitzolen *La democracia en Euzkadi* liburuaren zati bat; *Siete meses y siete días en la España de Franco*, Iñaki de Azpiatzuren narrazioa; *El nacionalismo vasco y la guerra civil en España*, Policarpo de Larrañagaren liburuskak; *Le problème basque vu par le Cardinal Goma et le Président Aguirre*, José Antonio de Aguirreren liburua; *Un homme, un clergé, un peuple - Euzkadi (Pays Basque)*, Alberto de Onaindiarena; *Le Clergé basque. Rapports présentés par les prêtres basques aux autorités ecclésiastiques*, apaiz euskaldunen txostenak; *Le cas des catholiques basques*, Iñaki de Azpiatzuren liburuskak. Halaber, Parisko eskualdean Espainiako gerra zibila eta euskaldunen borroka gaia zuten mitinetan esku hartu zuen; orobat, *La Jeune République* talde katoliko progresistak antolaturiko albiste-irratsaioaren (*Journal Parlé*) aurkezpenean esku hartu zuen (munduari Gernikako bonbardaketa munduari jakinarazten lehenetarikoa izateko pribilegio tristea izan zuen hartan).

Halaber, Euzko Jaurjaritzaren Parisko Ordezkaritzaren jardueran esku hartu zuen; izan ere, ordezkaritza horrek 1937ko maiatzetik aurrera sare sistema oso bat antolatu behar izan zuen Frantziara zetozen milaka eta milaka errefuxiatu euskaldun bertan hartzearen.

Euzkadiko Gobernuaren jardunbidearen alde zeuden talde eta pertsonaiekin harremanetan zegoen: *La Jeune République* (kristau demokraziaren ezkerria), *L'Aube* aldizkaria, *Parti Démocrate Populaire* alderdia (P.D.P.), François Mauriac, Jacques Maritain, Georges Bernanos, Paul Vignaux, Britainiako ekintzaileak, etab. Harreman guzti horietan Eugène Goyhenecheren partaidetza funtsezkoa izan zen zeren eta 1937ko martxotik hara Marceau hiribideko 11.ean finkatu zen Euzkadiko Ordezkaritzan, frantses hizkuntza osoki menderatzen zuen pertsona bakarra baitzen.

Euskaldunen aldeko laguntza eta sorospen ekinbide guztien artean, begikotasun adierazpide guztien artean, elkartasun agerpide guztien artean gorena, dudarik gabe, *Ligue Internationale des Amis des Basques* (Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Batasuna, L.I.A.B.) izenekoaren sorrera izan zen. Elkargo horrek VIII. barrutiko Hoche Hiribideko 36.ean zuen egoitza, haren sortzaile, eragile eta mezenas zen Manuel de Inchaustiren apartamentu batean.

Batasun horrek, osatzen zuten pertsonaia entzutetsuengatik, ospe handia izan zuen; haren helburua euskaldunekiko atxikimendu adierazpen guztiak koordinatzea zen, euskaldunentzako laguntza eraginkorrago ekarri nahiz. Senako Prefeturan bi elkartek emana zuten izena, L.I.A.B.eko Frantziako sekzioa osatuz:

- *Comité de Secours aux Basques* (Euskaldunei Laguntzeko Batzordea) izenekoa, Ohorezko Batzordeaz eta Administrazio Kontseiluaz hornitua zena. Ohorezko Batzordeko lehendakaria Verdier Kardinala, Parisko artzapezpikua zen eta haren kideak ziren: Edouard Herriot Lehendakaria; Auguste Champetier de Ribes, Basses-Pyrénées-etako senatorea; Georges Rivolle ministro ohia; Feltin monsignorea, Bordeleko artzapezpikua eta Louis Gillet, Frantziako Akademiakoa. Administrazio Kontseiluak, Clément Mathieu monsignorea, Aire eta Akizeko apezpikua buru zuela, Fontenelle monsignorea, Jacques Maritain filosofoa, Ernest Pezet diputatua, Raymond Andrieu, Claude Bourdet eta Eugène Goyheneche biltzen zituen.
- *Comité des Intérêts Généraux d'Euzkadi* (Euzkadiko Interes Orokorretarako Batzordea) izenekoaren Administrazio Kontseiluak, François Mauriac-en lehenkaritzapean Raymond Laurent, Ernest Pezet eta Philippe Serre diputatuak, Raymond Andrieu, Georges Hoog, Louis Gillet, Pierre Dumas eta Eugène Goyheneche biltzen zituen.

Ligue Internationale des Amis des Basques batasunaren barne, Eugène Goyheneche Euzkadiko Gobernuaren eta haren Parisko Ordezkaritzaren "begia" zen; lan horretan, bestalde, Francisco Javier de Landaburu lagun handiak laguntzen zion, Parisera erbesteratua zen E.A.J.ko diputatu ohi hura L.I.A.B.eko bankuko sinaduraren jabea zen.

Bigarren mundu gerraren hasiera zela eta (1939ko irailak 2), L.I.A.B.eko ekintzak bakandu egin ziren eta Alemaniako gudarosteak Frantzia okupatu zuenean (1940ko ekaina) erabat gelditu ziren. Bestealdi bat irekitzen zen, bestelako gatazkak eta dramak ekarri behar zituena.



Bigarren mundu gerra

1 1939an bigarren mundu gerra hasi zenean, Eugène Goyhenechek 24 urte besterik ez zituen. Baina zenbat gertakari iraganak ziren 1931-32 ikasturtetik, Baionako Saint-Louis-de-Gonzague ikastetxeko aulkietan, artean filosofia ikasle gaztea zela, euskal abertzaletasuna aurkitu zuenetik.

Data horren ondoren, euskaltzaletasunaren aldeko lanari egiteari lotu zitzaion, bere ikasketen eta karreraren kaltetan egin ere. Arestian ikusi dugun bezala, euskaltzaletasunaren alde lan egiteari ordu gehiago eskaini zizkion unibertsitateko ikasketei baino.

Ez zuen, hala ere, urte horiek guztiak bere karreraren kaltetan eta ia erabat euskaltzaletasunari eskaini izanaren damurik behin ere izan.

Ez zuen Ecole des Chartes hartan denbora luze egin ikasten; 1939ko irailean, gerra-gurdietako gudu taldean sartu behar izan zuen eta 1940ko maiatzean erresebakiko aspirante graduarekin utzi zuen Versaillesko Gerra-gurdi Eskola; Vannes-ko 509. Errejimentuan zegoela, alemaniarrek preso hartu zuten 1940ko ekainean eta hala zegoela, disenteria larria harrapatu izanari esker, osasunez sendotzeko oporrak eman zizkioten, eta Alemaniara baino lehen soldadutzatik erabat libre utzi zuten; hala, 1940ko urriaren amaieran, Uztaritzera itzuli zen.

Orduan hasi zen bere bizitzako zeresanik eta eztabaidarik gehiena sortarazi duen aldia; II. Mundu Gerra garaian alemaniarrekin izandako harremanei dagokiena, alegia.

Bestelako ustea oso zabaldua egon den arren, kontu horiek ez ziren batere tabu izan Eugène Goyhenecherentzat; argitu ere egin zituen oroitzapen liburu batean⁶ eta ez zuen auzi horri buruz eztabaidatzerik

6. Eugenio Ibarzabal: *50 años de nacionalismo vasco 1928-1978*, Ediciones Vascas Argitaletxea, Donostia, 1978, 279-293 orr.

sahiestu inoiz⁷.

Alemaniarren zale omen zelako tesia, bestalde, erabat arbuizatzekoa da; kontrara, Gernikako bonbardaketarenekoan eta gero ere, oso gogor altxa izan zen alemaniarren aurka; erabat alde batera uztekoa da, beraz, bizkarreratu izan zaion alemaniarren aldeko begikotasunik txikiena ere⁸.

Euskal Herria Alemaniaren babes-herri *autonomo* bihur zedila nahi omen zuen ideia horrek ere ez du nondik heldurik azterketa sakon bat egitera: armistizio ituna egite bertatik (1940ko urriak 24) eta are gehiago Montoire-ko Hitler-en eta Pétain-en arteko elkarrizketaz gero, ongi argiak dira alemaniarren kontsignak; Vichy-ko Gobernuarekin modu onean eta adiskidetasunez konpondu nahia aldarrikatzen baitzuten alemaniarrek eta Hitler-ek berak; ez zen beraz –Breitaniako kasuari buruzko oraintsuko historia azterketek argiro erakutsi izan duten bezala⁹– Pétain Mariskalaren Gobernuak bere agindupean zituen Frantziako lur eremutik eskualderik bereiztea zertan aipaturik.

Lehendik ezagutzen zuen eta gerraren lehenengo urteetan zenbait bider Euskal Herrian izana zen Karl Buda, entzute handiko euskalari lehenengo Berlingo Unibertsitatean eta gero Erlagen-ekoan Kaukasoetako hizkuntzetako eta Euskarako irakasle izan zenaren eskutik jarri zen Eugène Goyheneche alemaniar ofizialeekin harremanetan

Luze gabe, 1940ko uztailetik 1942ko uztailean arte Frantzian alemaniar administrazioaren zuzendari militar –MBF– zen Werner Best doktorearen ezagupidea egin zuen (1942ko uztailean Paristik joan ondoren Reich-aren

7. Guk ere elkarrizketa asko izan ditugu Eugène Goyhenecherekin bigarren mundu gerran alemaniarrekin izan zituen harremanez. Hurrengo batean elkarrizketa horiek eta haren artxibo pribatuetan arazo honi buruz eskuataratu zaizkidan dokumentuak argitaratzeko asmoa dut. Eugènek berak ireki zigun aldi horri buruzko artxiboen multzoa.

8. Ikus esaterako *Errobi ezizenaz Euzko Deyan*, 1937ko apirilak 30eko 45. zenbakian argitaraturiko “Les boches - Ils ont détruit Gernika” (Alemanek suntsitu dute Gernika) izenburuko artikulua. “Egia esan, halako basakeria teutoniarren tradizioan barne sartzen da” idatzi zuen bertan.

9. Breitaniari dagokionez, ikus:

Henri Fréville: *Archives secrètes de Bretagne 1940-44*, Ouest-France, Rennes, 1985, 244 orr.

Bertrand Frelaut: *Les nationalistes bretons de 1939 à 1945*, Les bibliophiles de Bretagne, Editions Beltan, 1985, 232 orr.:

enbaxadore izendatu zuten Danimarkan). Bere burua hain ardura handiko pertsonarekin harremanetan jarria ikusirik, bada, okupatzailearen aurrean Euskal Herriaren mesederako "euskal diplomazia egintza" bat izan zezakeela otu zitzaion, Parisen eta Iparraldean zituen adiskide batzuek lagun zituela eta haiengan bermatzen zela.

Garai horretan Fantzian, zegoen bezala okupatua egonik, "euskal diplomazia egintza" horretan saiatzea ordu onekoa eta legebidezkoa zen ala ez, eztabaidagarri litzateke, baina egin zuen gauza asko, hainbat aldetatik begiratuta, onuragarriak izan zirela ez lezake inork ukatu. Egin zituen mesedearen artean aipagarriak dira, Frantzian bizi ziren Hego Euskal Herriko errefuxiatuak beren administrazio egoera kaskarretik atera izana; Alemanian preso zeuden Iparraldeko zenbait pertsona herrira itzuli zitezela lagundu izana; indar okupatzaileak zirela eta, ezinean zebiltzan Iparraldeko hainbat biztanleri laguntza eskaini izana (kartzelatik ateratzeko, lekuz aldatzeko edo Frantzian bizi ahal izateko agiria lortzeko), bai eta Alemaniara S.T.O. (Nahitaezko Lan Zerbitzua) izenekoak betetzera eraman ez zituzaten edo beharrez erbestera ez zituzaten.

Batzuen askatasuna oso bizkor lortu zuenez, gero eta fabore eskakizun gehiago iritsi zitzaion, eta bere ahalein naurrian horiek bideratzen saiatu zenez, gero eta katea korapilatsuagoan nahastu zen. Auzirik larrienak eta funtsik gabekoenak, denetik pilatu zitzaizkion¹⁰ Uztaritzeko *Uhaldea* familiaren etxean.

Gutxi da –Frantzia aske geratu zenean egin zen bezala– gerra bitartean zuhur jokatu ez zela esatea: baina berak, egiteko zituenak guztien bistan eta inori ezer izkutatatu behar zionik pentsatu gabe egin izan zituen. Izan ere, ez al zen, bada, ezagutzen zituenen eta ez zituenen atsekabeak arintzen saiatzekoa zuen asmoa? Zertan ibili behar zuen, beraz, bere joan-etorriak, alemaniarrekiko harremanak eta okupatzaileekin zituen tratuak gorde nahian?

Nolanahi ere, argi erakusten dute Uztaritzeko Goyhenechetarren familiako artxiboan dauden hainbat eta hainbat paperek –daukagun asmoa inoiz betetzen bada, auziaren beraren azterketa zehatz batekin batera argitaratuko diren horiek– zenbateraino bere eginbidea baikorra izan zen eta, erresistentziako partaide izan ziren batzuk barne, haren laguntzaren hartzaile izan zirenek nolako esker ona aitortu zioten.

10. Hala, behin eskatu zioten etxe bateko baratzearen okupazioaren truke jaso beharreko kalteordineaz ardura zedin alemaniarren aurrean!

Okupatzailearekin izaten zituen hizketaldi guztietan, Euskal Herriko egoera baketsua zela azpimarratzen zien, ez baitzuen hemengo jendearen kontra errepresiozko eta indarrezko neurririk har zezaten nahi; jokaera hori bat zetorren, bestalde, Erresistentziaren helburuekin: Erresistentziarentzat ona zen mugaldean, hainbat pertsona gordean igaro behar zuten eskualde estratejiko honetan, tirabira handirik eta alemaniar tropak hona ekarrazizko zituen izkutuko makirik ez izatea.

"Euskal Herriaren aldeko diplomazia egintza" horrek erakar zezakeenaren ardura ere Eugène Gohyenechek bere gain hartu izan zuen beti: errepresioa ere, beraz, berak pairatu izan zuen.

Gogorra izan zen Frantzia libre bilakatu ondorengo giro beroan ezarri zioten zigorra: atxitu, 1944ko urriaren 18an, eta Basses-Pyrénées-etako Justizia Epaimahaiak hil arteko bortxazko lanetara eta hiritarraren duintasunik gabe bizi behar izatera kondenatu zuen Paben, 1945eko urtarrilaren 10ean.

Epaimahi horretako gehiengoak *Bai* erantzun zion egin zitzaion lehenengo galderari: "Eugène Gohyeneche, Gaston, aurrean dugun akusatua, errudun da ala ez da, 1941ean, 1942an, 1943an, 1944an edo gehienez ere hamar urtez honakoan, Frantzian eta gerrak iraun duen bitartean, kanpoko indar batekin edo haren mandatariekin lurralde honen aurka hari bere asmoak betetzen lagundu izanaz, etsaiari haren asmo guztiak betetzen laguntzeko prest zegoela erakusten zuela bere jokatzeko erarekin".

Epaimahi horretako gehiengoak *Bai* erantzun zion bigarren galderari ere: "Eugène Gohyeneche, Gaston, aurrean dugun akusatua, errudun da ala ez da, aipatu direnaldi eta lekuetan, etsai genuen indar baten agente eta mandatariekin eta gobernuaren baimenik gabe, aipatu diren asmoak helburu zituela harremanetan ibili izanaz, gerra bitartean".

Epaimahi horretako gehiengoak *Ez* erantzun zion, ordea, hirugarren galderari: "Eugène Gohyeneche, Gaston, aurrean dugun akusatua, errudun da ala ez da aipatu direnaldi eta lekuetan modu batera edo bestera Frantziaren osotasunaren aurka ezer egin izanaz edo Frantziako aginteari bere agindupean duen edo hala edukitzeko asmoan duen lurraldearen parte bat kendu nahi izanaz".

Epaimahiak gehiengoz aitortu zizkion, halaber, egindakoaren ardura arintzen zuten arrazoiak.

Ondoren, Mauzac-eko (Dordogne) kontzentrazio esparruan sartu zuten lehenbizi, eta Struthof-ekora (Altsazia) aldatu gero. Baina, emandako kondena aldiro hainbesteko batera jaitsiz; 10 urteko bortxazko lanetara, 1945eko ekainaren 6an; 5 urteko kartzelaldira, 1945eko otsailaren 4an; 4 urteko kartzelaldira, 1947ko uztailaren 29an; azkenean, baldintzazko askatasuna eman zioten 1947ko azaroaren 11n, eta Gironden bizi ahal izateko eskubidea utzi zioten: behintzat libre zen orain, 37 hilabete kartzelan eman eta gero. Eta 1948ko otsailean Uztaritzera itzuli zen.

Duintasunik inoiz ez izateko zigorra ere, 1950eko maiatzaren 9ko dekretua zela bide, 5 urtera jaitsi zitzaion; gero, 1951ko urtarrilaren 5ean amnistiatu egin zuten eta 1952ko uztailaren 12ko Kontseiluko Lehendakariaren dekretuak amnistia osoa aitortu zion eta hiritarrari dagozkion eskubide guztiak ezagutu zizkion: beraz, horrekin duintasun betea bihurtu zion Frantziako Errepublikak. Ez dago bihotz oneko euskaldunen aurrerako duintasunik inoiz ere galdu ez zuela esan beharrik; ikusirik haren ekintza interes pertsonalik gabea, haren inori laguntzen saiaturahia eta horretarako sakrifikatze borondatea, are gehiago estimatu zuten baizik.

Euskaldun Gazteen Batasuna (Fédération des Jeunes Basques) erakundearen sorreran eta aurrerabidean Eugène Goyhenechek izan zuen funtsezko partaidetza ezagutzeko aukera izan zuten haren herrikide batzuek. 1943ko apirilaren 27an, gerra bete-betean zela, Uztaritzen eratu zen elkargo honen helburua folklore-talde guztiak federazio bakarrean biltzea zen. Federazio hori agintariek ofizialki aitortua izan zela eta, hika-mika gogorrak izan zituen Iparraldean itzal handiko beste abertzale garaikide batekin, Mark Légasserekin, alegia.

Urtebete baino zerbait gehiago iraun zuen Federazio horrek, eta bitarte horretan hainbat tokitako dantza taldeak elkartzea lortu zuen: Miarritze (*Olaeta*), Baiona, Bordele (*Irrintzi*), Paris (*Errepika*), Kanbo (*Kanboko Izarra*), Baigorri, Larresoro, Jatsu, Itsasu, Milafranga, Uztaritze (*Zazpiak-Bat*) eta Hazparne. Halaber, bi folklore ekitalde handi antolatu zituen (Uztaritzen, 1943ko abuztuaren 1ean lehenengoa, eta Milafrangan 1944ko apirilaren 16an bigarrena). Guztira berrogeita hamarren bat arduradun gazte biltzen

zituen elkargo hark dantzak, abestiak, antzerkia eta hizkuntza ikasteko klaseak antolatu zituen.

Eugène Goyheneche Federazio horretako Lehendakari izan ez bazen ere (karguan Aldudeko Bernard Mendisco eta Baigorriko Léon Curutcharry izan ziren hurrenez hurren), bera izan zen horren bihotza eta eragilea. *Euskaldun Gazteen Batasuna* sortzerakoan eta bideratzerakoan erakutsi zuen agian - adiskide min batzuk, hala nola Lucienne Haitze, Michel Limonaire eta Emile Hirigoyen lagun zituela- gauzak antolatzeko zuen gaitasunaren neurri bete. Federazio horrek garrantzi handia izan zuen, eta ez bakarrik gure hizkuntzaz, antzerkiaz, kantuaz eta dantzaz arduratu zelako, baina baita -eta horregatik batik bat- euskal abertzaletasuna zegoelako jokoan; gainera, militante belaunaldi berri bati egokiera eman zion lehen borroketa treba zedin: Michel Limonaire, Joseph eta Michel Labéguerie, Pierre Larzabal, Pierre Charritton, Jean Hillau, Pierre Landaburu, Pierre Chapar, Philippe Oyhamburu, Hegoaldeko euskaldunak ahaztu gabe, hala nola Javier Epalza eta Paco Eizaguirre, Haltsu eta Ezpeletako taldeen ardura zutenak, eta are Xabier Leizaola, José Mari Antzola, Ernandorena, etab. Egun ere, Baigorriko taldeko ardura zuen Jean Cabillon, erresistentzia gudari gaullista, hunkiturik oroitzen da nola, gerra bete-betean zela, Euskaldun Gazteen Batasunak bizirik iraunarazi zuen euskaltzaletasunaren garra.

Historian erroturik

Hauxe dugu Eugène Goyhenecheren ezaugarrietako bat: zegoen lekuan eta garaian zegoela, bizitzea egokitu zitzaion herrialdearen sustrairik sakonenak aztertzeari ekiten zion. Eta ez zuen hori bere adimenari soilki atsegina emateko zeren, bere zuen jakinduria besteri ezagutarazi nahirik, ahal zen jende gehienari probetxa erazten baitzion.

Hala, 1950-1952 bitarteko urteetan Cordobako probintziaren historiari ezagupen sakona beretu zuen, garai horretan Frantziako Kubako enbaxadore zen Héctor de Ayala bere aurrekoen genealogiari buruz ikerketak egin zitzaizkion eskaturik, bertan bizi izan zelarik. Bestalde, egonaldi horretan ezagutu zuen Lucenan, gero, 1952ko uztailaren 16an ezkontide izango zuen Trini Tenllado.

Era berean, La Martinique-ko artxibo-arduradun izendaturik, hara aldatu zen eta 1952-1958 bitarteko urteak bertan eman beharrez Antilletako uharte hartako historiari egin zuen lana ere ikaragarria izan zen: antzinako dokumentu guztiak bildu eta sailkatu zituen, elizetako artxiboak aztertzeko hainbat irtenaldi egin zituen, artxibo pribatuez ere arduratzen zelarik. 1953an Dokumentazio zentru bat sortu zuen bertan; La Martinique-ko historiari ardura zedin elkarte bat sortzeko ideia bultzatu zuen; La Pagerie museoa sortzen lagundu zuen (horren inaugurazioko hitzaldia berak egin zuen 1954ko otsailaren 7an); lizeoko filosofia sailean historiako klaseak ematen aritu zen. Egun La Martinique-ko Artxibo Zerbitzuetako Zuzendari Nagusi den Liliane Chauleau-ri ikasketak bideratzen lagundu zion: izan ere Eugène Goyhenecheri zor dio horrek bere bokazioa. Irratitik astero ematen ziren Historiari buruzko 250 hitzaldi antolatatu zuen, berak ere trebatu zuen Maurice Nicolas artxibari laguntzailearekin batera, eta azkenik, Antillak Uharteetako historiari buruzko obra bat argitaratu zuen bi liburukitan, laguntzaile horrekin berarekin: *Des îles et des hommes* (Uharteak eta gizonak).

Hachette argitaletxearen *Guides bleues*-erako (*Antilles, Guyanes, circuit des Caraïbes*), *Aperçu historique des Antilles* eta *Aperçu linguistique* artikuluak idatzi zituen.


Antilletako uharte horretan egin zuen egonaldian "aldi bateko martinikar" gisa sartu arren, "Martinikako semeorde" bihurtu egin zen: bertakoek adinatsu maite izan baitzuen uharte hura.

Eta, 1959-1960 bitartean, Girondeko Artxiboetako zuzendariorde laguntzaile zela, Cours des Aides izeneko ondare zerrenda osatu zuen; Gironde bizi izan zen garai horretako da, halaber, departamendu hartako "clochers-calvaires" izeneko kanpandorreez egindako artikulua (Elie Lambert-ek bezala berak ere gogokoagoa zuen izen hori "clochers-trinitaires" izena baino): La Rivière, Lalande de Libourne, Escaudes, Leves-et-Thoumeyragues.

Hala, Mont-de-Marsan-en, Landes departamenduko Artxibo Zerbitzuetako zuzendari zela (1966-1967), departamendu horretako prefeturaren arkitekturari buruzko artikulua bat argitaratzeko denbora hartu zuen, bai eta Mimizan-go antzinako elizari buruzko azterketa bat egiteko ere: agian artearen historiak zuen maisutasuna argien agertzen duen artikulua. Azterketa horren bukaeran "zazpi nahi" adierazi zituen, Mimizan-go monumentuak iraganeko axolagabekeriatik, gutziziatik, eta basakeriatik onik atera zitezkeen helburuarekin. Interesgarria litzateke hark adierazi eta 25 urte geroago "nahi" horiek zenbateraino bete diren jakitea.

Idatzitako gauzak oro kontuan hartuz, ikaragarria da idatzi zuen guztiak agertzen duen aberastasuna: guztira 150 baino gehiago dira Eugène Goyhenechek onduriko liburu, txosten eta artikuluak.

Bidasoaz goitiko Ipar Euskal Herriko bi aldizkari nagusiak diren *Bulletin du Musée Basque* eta *Gure Herria* soilki kontuan hartuz, 10 artikulua eta bibliografiari buruzko 25 txosten aurki daitezke lehenengoan, eta 20 artikulua eta bibliografiari buruzko 16 txosten bigarrengoan. Baionako, Landes-etako eta Euskal Herriko gainerako aldizkariak ez zituen ahaztu: *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Munibe*, *Bulletin de la Société de Borda*, *Eusko Ikaskuntzako Nazioarteko Aldizkaria*, *Ikuska*, *Activités en Pays Basque* eta beste hainbatek Eugène Goyhenecheri zor dizkiote beren orrialderik onenetako batzuk.



Alabaina, idatzi zituen guztietan badira batzuk besteak baino aipatzea
gehiago merezi dutenak.



Obra nagusiak

Izenburu bat besterik ez balitz hartu behar, *Le Pays Basque* liburua litzateke hautatu beharrekoa. Eta guztiz bidezkoa litzateke hori aukeratzea, zeren eta, dudarik gabe, Euskal Herriko historiari gagozkiola, saihets ezinezko liburua baita.

Hala eta guztiz, unibertsitatean egin zituen bi tesiak ez lirateke alde batera uztekoak, ez eta itxura apalagoa duen, eta txixixeagoen artean sailkatzera oker egingo genukeen beste bat: *Notre terre basque*.

Lehen tesiak, Ecole des Chartes delakoan paleografo artxibari diploma lortzerakoan 1949an irakurritakoak honako izenburu hau zuen: *Bayonne et la région bayonnaise au Moyen Age (XII^e- XV^e siècles). Etudes d'histoire économique et sociale* [Baionako eta bere eskualdea Erdi Aroan (XII.-XV. mendeak). Ekonomia eta gizarte historiari buruzko azterketak]. Harritzekoa da obra horretan nolako iritzi berritzailea duen historiari buruz: historia orokorra, "Annales" deitu eskolak aldezten duenaren antzekoa eta gertakarietan oinarrituriko historiarekin hausten duena. Baionako eskualdeko ekonomia eta gizarte historia ez zuen ordura arte inork inoiz aztertu: ez ote da Erdi Aroa -XVIII. mendearekin batera- Baionako historiaren aldirik aberatsena, ingelesten mendean (teorian) zegoela?

Baiona, lehenik eta behin, Aturri behea, Ipar Euskal Herriko hiru probintziak eta Gaskoiniako parte bat hartzen dituen lurraldearen hiriburua da: geografia esparrua (ezaugarri fisikoak, zatiketa politikoak, ibai sarea, errepide sarea), beraz, garrantzitsua da eta, hein batean bederen, bertako jendetza eta jarduera ekonomikoa baldintzatzen ditu (produktio teknikak, merkatuak, bizimoldeak, gremioetako errejimenak, haietariko hiru ezagunak direla: harakinak, olagizonak eta txalupazaleak.

Baina Baiona, orobat, portua da, ibai eta itsas portua; bere ontzi sailari dagokionez, hiri ahaltsua zen nazioarteko mailan eta hartaz baliatu zen Ingalaterrako erregea behin baino gehiagotan. Merkataritza garrantzitsua zen eta hiri zein lurralde askorekin harremanetan zegoen: Bordele eta La Rochelle, Britainia, Normandia eta arrantzaleku anglo-normandoak, Herri

Behereak eta Hansa, Ingalaterra eta Irlanda, Iberiar Penintsula, eta are Mediterranea eta Afrika ere. Baiona mendetan zehar Nafarroako portua izan da; Eugène Goyhenechek Nafarroako erregearekin harreman estuak zituzten XVI. mendeko Baionako merkataritza batzuen izenak ezagutarazi ditu (Nicolas de Laxague, Bidot de Clarac, Laduchs familia, Lesbay familia...).

Erdi Aroko hirurogei dokumentu justifikagarriak, denak ordura arte agertu gabeak, argitaratu zituen eranskin gisa: hogeita hamabi latinez daude, Ingalaterrako kantzilaritzatik datozenak; hamar frantsesez eta hemezortzi Baionako gaskoieraz. Nabarmendu beharra dago azken hauek mende honetan aurkitu den gaskoierazko testuen bilduma garrantzitsuena osatzen dutela.

Bere bigarren tesiarekin (Bordele, 1966), Eugène Goyhenechek *Onomastique du Nord du Pays Basque (XI^e-XV^e siècles)* gaiari heldu zion; Ipar Euskal Herriko probintzia eta parrokiak arabera, Euskal Herriari dagozkion Erdi Aroko dokumentu bakanetan barreiaturiko toponimoak eta antroponimoak bildu zituen lan hartan.

Zalantzarik gabe, balio handiko pedagogo zen; hori zenbait artikulutan suma zitekeen¹¹ baina 1961ean Ikas-en kontura argitaratu zen *Notre terre basque* benetako agerpena izan zen askorentzat. Izan ere, *zabalkunde* obra bat baino askoz gehiago da. Hura -ongi pentsatuz gero-, lehen sintesia, lehen tresna pedagogiko baliotsua zen beren nortasunaren bila zebiltzan Ipar Euskal Herriko biztanleentzat. *Geografia, historia eta herri kulturaren nozio* hauek, lehen buruan eskola maisuei eta ikasleei zuzenduak, askoz ere eragin zabalagoa izan zuten.

Neurriak neurri eta proportzioak proportzio, belaunaldi batek euskal kontzientzia hartzeari dagokionez, liburuska horren zeregina ez ote da izan Hego Euskal Herriaren Sabino Arana Goiriren *Bizkaya por su independenzia* (1892) haren antzekoa?

11. *L'enseignement de l'histoire et de la géographie locales. Son utilisation pratique. Sa valeur pédagogique*, *Gure Herria*, 1959, 3. zk., 150-160 orr.; eta batez ere pedagogiaren alorreko obra nagusi txiki hori: *L'Inscription de la Maison Gorritia à Ainhoa* (Ainhoako Gorritia etxeko inskripzioa), *Gure Herria*, 1960, 5. zk., 289-297 orr., ohar bezala aurkeztua eta "herriko eskolako ikasle guztiek ezagutzen duten monumentu batez nolatan baliatu ezagupen-alor batzuei dagozkien irakaspenak ateratzea beste pretentsiorik ez duela".

Azkenik, zer esan *Le Pays Basque* liburuz? Zer esan lehenago esan ez denik? Hau dela, askoz ere, Iparraldeko historiaren sintesi onena. Eta hau esatea ez da inola ere aurrekoak gutxiestea, dela Francisque-Michel (*Le Pays Basque*, 1857) dela Philippe Veyrin (*Les Basques*, 1943), hauek, zein bere garaian eta jenero desberdinetan, ekarpen handia egin baitzieten euskal ikasketei.

Nolanahi den ere, komenigarria zen gauzak zertan zeuden ikustea Eugène Goyhenechek obraren sarrerako lehen lerroetatik adierazten zuenez: *"(Liburua) Lan askoren sintesia moldatzen saiatuko da, zeren halakoek, hurbil errazak ez izanik ere, batez ere duela mende batetik hona, emeki-emeki herri honen ezaugarriak eta haren izena hartu duen herrialde honen hainbat alderdi agertarazi baitituzte. Sintesi zaila, arriskutsua zenbaitetan, hainbat puntutan analisisa osatu gabe edo zirriborro moduan besterik agertzen ez baita. On da, alabaina, noizean behin epe bat seinalatzea, lanen egungo egoera zehaztea eta, ahal den neurrian, etorkizunerako ikerketaren norabideak erakustea"*.

Obra guzti honetan, haren azterketa-gai kuttunetako batzuk aurkitzen dira; haien aniztasuna harrigarria da.




Interesguneen aniztasuna

Jakina, ezinezkoa zaigu gai horietariko garrantzitsuenak ere hona ekartzea, ez eta ikerketa zehatzagoak behar izan dituztenak ere; soilki eta han-hemen jasotako bost besterik ez ditugu hartuko, haiei buruzko hitz batzuk esatearren: Baionaren eta Iruñaren arteko harremanak Erdi Aroan; balearen arrantza; Uztaritze, haren sorterriaren historia; Frantziako Iraultza Euskal Herrian eta Garat anaien ekintza; Augustin Chaho eta karlistaldiak.

Ezaguna denez, Nafarroako erregeen eta Baionako merkatarien arteko harremani dagokienez, Eugène Goyhenechek Londreseko *Public Record Office* eta Iruñako Nafarroako Artxibo Nagusian gordetzen diren Nafarroako Kontu Ganbarako artxiboak miatu zituen. Merkataritze harreman horien historian, XIV. mendearen bigarren erdia eta XV.ekoaren hasiera, antza denez, haien urrezko aroa izan zen. Baiona orduan nafar produktuen berezko irtenbidea zen, eta iparraldetik Nafarrera zihoazen produktuen inportazio zentrua (ez da ahaztu behar Gipuzkoaren eta Gaztelaren arteko batasunak Nafarroaren itsasorako bidea mozten zuela). Eugène Goyhenechek Nafarroako artxiboetan egin dituen aurkikuntzek Nicolas de Laxague *mercadero de Bayona* haren familiak Nafarroako erregearekin izan zituen erlazio pribilegiatuen jarraipena ahalbideratzen dute, 1358tik hasi eta 30 urte eta gehiagotan, gizon hori erregearen benetako konfidantzako gizona izan zelarik. Baionako merkatariak Nafarroako Karlos II.a "Gaiztoa" (1349-1387) eta Karlos III.a "Noblea" (1387-1425) erregeen hornitzaileak, mailegu emaileak eta bankariak izan ziren, eta hauen arrandirako jaidura haien aberaspide gertatu zen. Hornitzaileen kontratuen analisiak XIV. eta XV. mendeetako Baionako eta Iruñeko eguneroko bizitzaren alderdi jakin batzuk argitzen ditu.

XII. mendean Miarritzen eta Euskal Herriko kostaldean baleak, zeroiak eta izurdeak harrapatzen ziren. Jarduera horren deskripzioa zinez deigarria da: arrantza teknikak; arrantzaren ekoizpenak (koipea, haragia, mihia, azala, apaingarriak...); arrantzaleen erabide korporatiboa; baleen gaineko



eskubideak (hasieran erregeak portuan harturiko lehen bi baleen balio osoa biltzen zuen, eta gainerako guztien hamarrena). Ezer ez du alde batera uzten Eugène Goyhenecheren ikerketa arretatsuak; besteak beste, Baionak bere esparrua Miarrizera zabaltzeko saioa deskribatzen du (bi hirien arteko betiereko liskarren hasiera?) eta itsas bazterreko arrantzaren azkeneko urteak eta Ipar itsasoetako ur handitako arrantzaren hasiera XV. mendeko amaieran kokatzen du.

Goian adierazi bezala, Eugène Goyhenecheren artikulua hainbat aldizkaritan barreiatu daude; artikulua horiek argitaratzea guztiz gomendagarria litzateke. Baina proiektu horren parte bat bakarrik gauzatzekotan, gutxienez, Uztaritze bere jaioterriari buruzko artikulua guztiak (haietako batzuk Louis Dassancerekin lankidetzan idatziak) bildu beharko liriteke liburuki batean. Horrek Lapurdiko hiriburu historikoa den eta gainera Euskal Kultur Erakundearen egoitza den hiri horren izenaren ospea emendatuko luke. Uztaritze gaitzat hartzen duten testu horiei, jakina, artoa mendebaleko Europar sartzeari buruz egindako lanak erantsi beharko litzaizkieke, zeren eta berak adierazi zuenez, 1523tik (hots, Amerika aurkitu eta 30 urtera besterik ez) *artha mayro* izeneko landare bat eremu zabaletan hazten zen Errobiko ibarrean Kanboren eta Milafrangaren artean. Artoak herrialdearen ekonomia aldarazi zuen, bai pertsoneri eta bai azindari funtsezko elikadura ekarri eta ustiakuntza arrazionalagoa, jendetzaren gehikuntza, bizilekuaren hobekuntza eta ordura arte landu gabeko lurretan erein ahal izatea bideratuz.

Duela urte batzuk, belarriak berotu zizkiguten 1789ko Frantses Iraultzarekin eta haren bigarren mendeurrenaren ospakizun ekitaldiekin. Gauza ezaguna da Eugène Goyhenechek ez zituela gogoko iraultza horretako *gizon handiak*, ez eta haien erromatar erako solas harroak eta hitz puztuak. Hori dela eta, alabaina, erreakzionariorat hartu behar dugu? Ez, mila aldiz ez. Kontuan har dezagun Ipar Euskal Herriko egoera Iraultza denboran: euskal probintzien erakunde tradizionalak deuseztuak; herriaren ordezkariak eskaturiko euskal departamenduari ukoa emana; apaiz ihardokitzaileren aurkako errepresioa, gehiengo osatzen zutenak eta inola ere *aristokratik* ez zirenak; herri lurren erosketa eta pribatizazioa, laborari pobreei kalte besterik ekarri ez ziena; euskararen aurkako eraso zuzenak, bereziki *Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française* (Tokiko hizkuntzak suntsitzeko eta frantses hizkuntzaren erabilera orotara hedatzeko premiei eta baliabideei buruzko txostena) izenekoan, Grégoire apaizak iraultzaren II. urteko IX.


hilabetearen 16an Konbentzio Nazionalean aurkeztua, edota Barrère-rena, Herri Osasunaren Batzordearen izenean, II. urteko V. hilabetearen 8an Konbentzioan ere aurkeztua zena; *zitaltzat* jo zituzten Sara, Itsasu eta Azkaine muga herrietako eta Lapurdiko beste herri askotako biztanleen erbesteratzea

Hala bada, ikusi ahal izan denez, Ipar Euskal Herriari dagokionez, Frantses Iraultzaren balantzea oso negatiboa da, Jacobino itxi besterik ez diren zenbait *progresistak* zernahi esanagatik ere.

Garat anaiak, beren ezbai guztiak gorabehera, Basses-Pyrinées deituriko departamendua sortzean goraki protestatu izana dute merezimendua. Dominique-Joseph gaztearen nortasuna bereziki interesgarria da. Bere karrera politikoa jarraitu zuen inperioaren aldia eta zenbait gutun eta txosten zuzendu zizkion Napoleon I.ari; haietan ideia moderno batzuk islatzen ziren, hala nola *Frantziako eta Espainiako Euskaldunen arteko ezinbesteko batasuna* eta euskararen irakaskuntzari zegozkionak. Tamalez, heriotzak ez zion utzi Eugène Goyhenecheri Garat anaietz pentsatua zuen lana burutzea, hartarako oraino agertu gabeko dokumentu batzuk bilduak zituela.

Halaber, Augustin Chaho, ez-konformista izanik hain erakargarri den euskaldun hari buruzko idazkia irakurri beharra dago berriro, bai eta lehen gerra karlistan izan zuen jokabideari erreparatu. Azken batean, ez zuen Augustin Chaok euskal abertzaletasuna asmatu, Sabino Arana Goirik baino 60 urte lehenago? Gure aldetik esan behar dugu hark ez zituela bere ideiak sistematizatu, bigarrenak egin zuen bezala, ez eta haien defentsan jardun zezakeen alderdi politikorik sortu.

Halaber, ñabardura zenbait erantsi beharko genioke karlistengandik abertzaleengana lihoakeen hari politiko zuzena ikusten duen interpretazioari. Zalantzarik gabe, lehen euskal nazionalismoak (1893tik 1898rako) nekazaritza giroko eta erlijio balioez mamitua zen ideologia karlista tradizionalaren zenbait ezaugarri beretu zituen. Hala ere, laster, 1989tik aurrera, liberalismoa indarrean sartu zen nazionalismoan, modu iraunkorrez eta sakonki markatuz: nola ulertu bestela 1907tik Bilbok alkate abertzalea izatea? Bidasoako hegoaldeko euskal probintzietan, XIX. mende osoan, baziren liberalak, hirietan gehienbat, benetako foruzaleak eta euskal abertzaletasunaren aurrekoak izan zirenak, karlistak bezalatsu.



Dena den, balantzea egiterakoan, zer eskaintzen digu historiak? Ez ote dizkigu irakaspenak aurkezten, gutxienez gogoan hartzea komeniko litzaiguen irakaspen multzo bat, etorkizunean huts berak berriro ez egiteko besterik ez bada ere?

Historiaren irakaspenak

“**H**istoria, orainaren maistra eta geroaren giltza”. Eugène Goyhenecheren esaldi honek¹² ez ote du haren iritziz gizonen eta zibilizazioen bizitzan historiak duen funtsezko garrantzia adierazten?

Esaldi horrek, oroz gainetik, historiak zuen ikusmoldea agertzen du.

Alde batetik, historiak orainaren konplexutasuna ulertzen laguntzen digu: *“... ikusmugak zabalduz, nola espazioan hala denboran, arazoan konplexutasuna erakusten dio izpirituari, gizarte egoera guztiak, jokabide individual edo kolektibo guztiak lehen begiratuan irudi lukeen baino kausa desberdinagoetatik, ñabardura handiagoko asmoetatik sortzen direla irakasten du. Ideologoek jarrera hartze ximplean aurrean, bere behaketen balantze orekatua kontrajartzen du berak”*.¹³

Baina, bestalde, historiak etorkizuna prestatzen ere laguntzen digu, eta, ahal dela, etorkizun hobe prestatzen. Historia hobeto ezagutzen gero, zenbait *erabakitzaile* politikok huts batzuk saihestu ahal izan zituzketen? Ohar orokor hori ez da bereziki baliotsua, zoritxarrez, Euskal Herriaren kasuan? Historiaren irakaspenek, izan ere, zerbitzu estimagarriak egin ditzakete etorkizuna konprometitzen duten aukera politikoa, ekonomikoa edo kulturala egiterakoan: *“Zeren eta Historia ez baita hildako iragan baten berreraikitze alferra, baizik eta giza bilakabide baten azterketa jarraikia, aspaldieneko mendeetatik gure garaietaraino berarekin etengabe eramaten gaituena. Esana da arrazoiarekin bere historia ezagutzen ez duen herria oroimena galdua lukeen gizonaren irudikoa dela: iragana ez ezagutzearen ordaina egungo bizitza baldintzak ez ezagutzea eta herri baten etorkizunerako inprobisaziorik arriskutsuena egitea da, iraganeko esperientzien kontu egingo ez lukeen gizonaren kasuan bezalatsu. Modu horretara ulertua, Historia ez da ez denborapasa bat ez asmakizun jolas bat, bere zeregina du gizaratean, bai taldeen eta bai norbanakoen jokabideari*

12. Haren *Des îles et des hommes* liburuaren I. liburukiko azken atalaren izenburua da.

13. *Des îles et des hommes*: I. liburukia, 171 or.

dagokionez".¹⁴

Euskal historiari bereziki doakionez, Eugène Goyhenechek *Le Pays Basque* liburuan, ondorio gisa, zenbait ezaugarri ematen ditu.

Elementu positiboen artean, honako hauek jasotzen ditu:

- euskal historiaren luzea, Europako herrien artean luzeena: zalantzarik gabe, "*Euskaldunek iraun egin dute*".
- moldatze eta asimilazio gaitasuna, horren gaurko adibidea Mundu Berrirako *diaspora* delarik.
- euskaldunek demokraziari dioten atxikimедua, instituzio tradizionalen funtsezko ezaugarria.
- sakratuaren zentzua eta sentimendu erlijioso sakona, kultura oso batean eragina izan duena.

Zoritarrez, zenbait elementu negatibok lausotu egiten dute koadroa:

- klanaren nozioa, *tribalismoak* hondamendiak eragin ditu euskaldunen artean, indarkeria eta zatiketa instintuak sustatuz. Ezerk ez zuen Eugène Goyheneche gehiago sofriarazten tribalismoaren berragertze horiek baino, berak ia egunero ikusiak zituenak Euskaldunen arteko hausketa amaigabeetan eta are euskal abertzaletasunetik sorturiko familien arteko liskarretan ere. Halakoak saihestu nahiz, sofritu egingo zuen funtsezkoa eta azalekoa bereizten zekielako.
- horren ondorioetariko bat euskaldunek maizegi zatiturik, eremu mugatuan, aldian behin egindako borroka izan da; hots, borroka barreiatua, batasuna premiazkoa zatekeen aldietan.
- euskaldunen axolagabekeriak bai erregea aukeratzera eta bai, gero, Estatuaren nozioaren aurrean ez du, Suitzako herrietan bezala, konfederazio sendo baten eraikuntza bideratu.

Azken batean, zein nagusituko da euskal herriaren baitan: batasunaren borondatea edo klanaren joera? Galdera honi ematen zaion erantzuna nolako, herriaren etorkizuna halako.

14. Ibidem 171-172 orr.

Azkeneko urteak

1

1981ean erretiratu zen arte, Eugène Goyheneche Université de Pau et des Pays de l'Adour delakoan "Euskal Herriko hizkuntza, literatura eta zibilizazioa" irakasgaiaz arduratu zen irakasle laguntzaile gisa, postu hori 1968ko urtarilaren lehenean lortua zuela.

Elkarte askotako bazkidea zen: *Bidasoa, Institut d'Histoire Contemporaine; Euskal Elkargoa, Société des Amis du Musée Basque* eta *Kanboko Ikasleak* (lau elkarte horietako Lehendakaria zen), *Ikas, Association Internationale pour la Défense des Langues et Cultures Menacées (AIDLICM), Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Gure Herria, Fededunak, Eskualzaleen Biltzarra, Amis de la Vieille Navarre, Amigos del Camino de Santiago, Lauburu, Eusko Ikaskuntza, Association pour la Création d'un Institut d'Etudes Basques à Bayonne (ACIEB), Société de Borda de Dax, Société Archéologique de Bordeaux, Fédération Historique du Sud-Ouest, Société d'Histoire de la Martinique, Euskal Herriaren Adiskideak* (*merituzko bazkidea* izendatu zuten Azkoitian 1981ean), etab.

Beti gertu zegoen kultura adierazpen guztietarako, hala nola Orreagako guduaren 1200. urteurrenaren ospakizunean, gertakari haren arima izan baitzen.

1982ko maiatzean, Leioan, Pierre Lafitte, José María Lacarra eta Manuel de Irujorekin batera, Euskal Herriko Unibertsitateko doktore *Honoris Causa* izendatu zuten.

Euskal Herriko Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak gaia zuen Eusko Ikaskuntzaren X. Kongresuan (1987ko apirila - Iruñea) partaidetza garrantzitsua izan zuen, bai eta Munduko Euskal Kongresuan (Euskal Herriko Historiari buruzko Kongresua - Azaroa-abendua 1987 - Bilbo).

1988ko abenduaren 17an –zorigaitzokoa gertatuko zitzaion gaitzak jotzeko bezperan–, Eusko Ikaskuntzak 1989ko Manuel Lekuona Saria eman zion bere obra osoagatik.¹⁵

15. Sari hau Trini haren alargunari eman zitzaion 1989ko irailaren 16an Uztaritzeko udaletxean egindako ekitaldi hunkigarrian.

Nolanahi ere, harena lehen mailako zeregina ez bazen ere –bigarren mundu gerran eta aurreko aldiaren bezala–, euskal politikaz beti bezain interesatua zen.

Ezin konta ahal ziren Hego Euskal Herrian zituen lagunak, bisitatzera zetozenak eta *Uhaldean* bake eta lasaitasun eremua aurkitzen zutenak, bake hura bertako elkarriketa bizien oihartzunetik bakarrik hausten zutela.

EAJri Eugène Goyhenechek zion leialtasuna inoiz ez zen hautsi; Francori egin zioten azkeneko jokoaz harro zegoen –berak ere hartan esku hartu baitzuen–, José María de Leizaola lehendakaria muga iragan eta Bilbon eta Gernikan izan zenean 1974ko Aberri Egunaren kariatz.

1981ean, Jean Etcheverry-Ainciart, Ramuntcho Camblong, Ximun Haran, Jannick Aramendy eta Michel Larrouletekin batera, *Ager* aldizkaria kaleratu zuten Iparraldean Euskal Autonomi Elkartearen burutzapenak ezagutarazteko helburuarekin.

1986ko udazkeneko EAJ-EA hausturak asaldatu baino gehiago egin zuten. Nahigabetu egin zen, bere lagunak –eta bi aldeetan oso lagun kuttunak zituen– bereizten ikusten baitzituen: gerra aurreko gaztaro suhar hartako lagunak, bai eta erbeste eta klandestinitate aldikoak. Ez ote zen hainbat aldiz salatu zituen Euskaldunen tribu-borroka haien beste atal bat honako hau? Guztiarekin ere, “alderdi zaharrari” leial izaten jarraitu zuen, baina ez zuen nazionalismo demokratikoaren krisia erabat ulertu. Joera politiko guzti horren batasunak –gero eta gaurkotasun handiagokoa dena–, dudarik batere gabe, haren atxikimendua bilduko zuen.

Alabaina, abertzaletasunaren suak –berak lehenik eraman zuelarik Iparraldera–, 55 urte geroago haren baitan jarraitzen zuen beti.

Su hura ukitu gabe zegoen eta are biziagotu egiten zen, bere hurrekin eta lagunekin zegoela, Baionako Ospitaleko azken egunetan ere, euskal mugimenduaz galdetzen ziotenean.

Euskal Herriaren etorkizun politikoan, bere gaztaroko Zazpiak-Bat eta ikurrin haietan zuen fedea gorde egin zuen betiere.





Histoire et Politique

Six ans après, le vide laissé dans les études basques par la disparition d'Eugène Goyheneche est toujours aussi grand; certes, les études historiques progressent rapidement grâce surtout à de remarquables professeurs aussi bien dans les Universités publiques que privées, aussi bien dans la Communauté Autonome Basque qu'en Navarre. Chaque année, des mémoires et des thèses voient le jour, qui nous révèlent des pans jusqu'alors peu connus de notre Histoire collective. Mais en cette fin du XXème s. quel est l'historien qui peut nous parler -avec la même science et la même aisance que le faisait Eugène Goyheneche- aussi bien des Grottes d'Oxocelhaya, du Pampelune médiéval ou des débuts de la révolution industrielle en Bizkaye? C'est que sa connaissance véritablement encyclopédique du Pays Basque couvrait toutes les époques, couvrait toutes les provinces (et même bien au-delà si l'on tient compte par exemple de ses travaux sur l'émigration basque en Amérique du Sud ou en Californie).

Face à un tel historien qui avait une vision aussi profonde de l'histoire du Pays Basque dans son ensemble, nous ne sommes certainement pas les mieux qualifiés pour en parler.

Nous ne sommes pas non plus les mieux placés pour évoquer les riches qualités de l'homme; nous n'avons pas -ni d'ailleurs l'envie d'avoir- la distance ou le recul suffisant pour porter un jugement "objectif" (mais ce mot a-t-il un sens?) sur celui qui fut notre ami.

Nous connûmes en effet Eugène Goyheneche au début des années 70. Dès la parution de notre thèse sur Sabino Arana Goiri, en 1972, il en fit dans le Bulletin du Musée Basque, un compte-rendu aussi amical que trop bienveillant. Mais c'est surtout dans les cinq ou six dernières années de sa vie que nous eûmes le privilège de mieux le connaître et de l'apprécier. En 1987, nous commençâmes à étudier le mouvement eskualerriste en Pays Basque Nord dans les années 30, premier essai de revendication identitaire sur un plan politique en Iparralde. Lui qui avait été -quoique fort jeune à

l'époque- un des principaux animateurs de ce mouvement, accueillit avec enthousiasme cette nouvelle recherche et nous ouvrit toutes grandes les portes de sa si précieuse bibliothèque et de ses riches archives.

Mais ce n'était pas là un traitement particulier: c'est de longue date qu'il aidait et encourageait tous les étudiants, tous les chercheurs qui venaient le solliciter; il avait à coeur de diffuser au maximum ses connaissances, de faire partager son savoir. Mikel Duvert a pu écrire, l'évoquant en compagnie de deux autres savants et également personnages-clés du XXème s, d'ailleurs ses amis intimes, José Miguel de Barandiaran et le Chanoine Pierre Lafitte: "Et ces hommes sont des maîtres car riches en eux-mêmes, ils l'étaient plus encore dans le partage"¹.

Il savait écouter les gens avec patience certes, mais aussi avec intérêt tant tout ce qui touchait au Pays Basque le trouvait attentif et passionné; cela lui permettait de pouvoir ensuite les orienter et les conseiller plus efficacement: il était en effet la référence même, le passage pratiquement obligé pour quiconque entreprenait une étude ou une recherche historique sur le Pays Basque; sa plus grande satisfaction était d'aider les chercheurs susceptibles d'enrichir le patrimoine culturel de cette "terre basque" qu'il aimait par dessus tout. En définitive, ne voulait-il pas développer chez tous ses interlocuteurs les qualités maîtresses de l'historien dans son rapport au sujet étudié: selon ses propres termes, "le coeur et le don de sympathie"²?

La place qu'occupera Eugène Goyheneche parmi les grands historiens du Pays Basque sera de toutes les façons, originale.

Il ne fut pas en effet uniquement, un médiéviste remarquable; il fut aussi dès sa plus tendre jeunesse, un militant au service de son pays et son action militante l'amena tout naturellement à s'intéresser aussi à l'histoire contemporaine. Ce fut aussi la conscience qu'il avait comme militant de la nécessité et de l'importance d'une bonne connaissance historique qui le conduisit à embrasser de façon globale le passé du Pays Basque pour tenter d'appréhender son présent et autant que possible, de dégager des lignes directrices pour l'avenir.

1. M. Duvert: *Gure Goyheneche Jaun maitagarria. Hommage à Ustaritz le 16 Septembre 1989* (I), *Herria*, n° 2021, 1989ko Irailaren 28koa.

2. Eugène Goyheneche: *Philippe Veyrin, historien, Gure Herria*, 1962, n° 4, p. 205

Il savait à quel point l'histoire est tout à fait essentielle pour la permanence de l'identité basque. Si l'euskara est la principale caractéristique du peuple basque, l'histoire en est la mémoire; n'est-ce pas elle qui lui donne conscience de sa personnalité, conscience de sa nationalité? C'est ce que s'efforcera de démontrer Eugène Goyheneche tout au long de sa vie.



Le milieu familial. Le jeune uztariztar.

Eugène Goyheneche est né à Ustaritz (Lapurdi) le 19 juin 1915; il est le fils d'Edmond Goyheneche et de Marie Farnié qui eurent également une fille plus jeune, Emita.


Son père fera une double carrière, si classique en Iparralde, de médecin et d'homme politique. Pendant 45 ans (1919-1964), il sera le conseiller général inamovible du canton d'Ustaritz, jouissant de nombreuses amitiés dans les milieux conservateurs basques.

Dans les années de l'enfance d'Eugène Goyheneche (de 1915 à 1930), Ustaritz avait l'aspect d'un gros village bourgeois, auquel les fortunes rapatriées par les "amerikanuak" donnaient même l'apparence sans doute trompeuse d'une certaine opulence.

La Révolution Française de 1789 avait laissé Ustaritz sans son Tribunal de Bailliage et sans son Biltzar du Labourd. Elle l'avait appauvri économiquement en même temps que dépouillé politiquement. Cette crise profonde au début du XIXème s. accéléra l'exode vers le Nouveau Monde; de nombreux uztariztars participèrent à l'épopée américaine du XIXème s.

Dès 1850, les "américains" d'Ustaritz firent construire dans leur village natal, de grandes bâtisses qui, si elles étaient presque toujours imposantes, témoignaient souvent d'un goût architectural douteux; par leur présence, ils donnaient un aspect coloré et pittoresque à ce village labourdin.

Dans les années de l'entre-deux-guerres (1919-1939), pesait sur Ustaritz comme sur l'ensemble d'Iparralde, la "dictature morale" du député Jean Ibarnégaray qui dominait totalement la vie politique en incarnant les valeurs de la droite traditionaliste et catholique. La pratique religieuse était élevée à Ustaritz qui allait devenir de plus un centre d'enseignement important avec l'ouverture à partir de 1927 du Petit Séminaire Saint François Xavier. C'est dans cette ambiance d'une paisible bourgade basque catholique et conservatrice qu'Eugène Goyheneche commence sa scolarité à l'école primaire du village.



Mais dès la classe de septième, il entre à l'Institution Saint-Louis-de-Gonzague, située à Bayonne, rue d'Espagne (50 années auparavant, Sabino Arana Goiri y avait passé deux années scolaires).

C'est là qu'il accomplit toute la scolarité secondaire jusqu'au baccalauréat, en qualité de demi-pensionnaire, rentrant ainsi tous les soirs à Ustaritz en autobus.

C'est sur les bancs du Collège Saint-Louis-de-Gonzague qu'il est saisi par ce qu'il faut bien appeler "le démon de l'histoire". La rencontre décisive a lieu en classe de philosophie, durant l'année scolaire 1931-1932. Jean-Pierre Urricarriet, séminariste, originaire des Aldudes (Basse-Navarre), âgé alors de 26 ans, y est alors surveillant d'études; brillant intellectuel, très féru d'histoire basque, esprit indépendant, "curieux mélange d'abertzalisme et de monarchisme maurrassien"³, il s'intéresse de près à la vie politique du Pays Basque Sud où les événements se précipitent et où le Parti Nationaliste Basque enregistre ses premiers succès publics depuis la fin de la dictature de Primo de Rivera.

Les discussions ne tardent pas à devenir passionnées entre le surveillant et l'élève de philosophie, de 10 ans son cadet: durant les heures d'étude au Collège, des billets sont échangés, des polémiques naissent. C'est à cette époque qu'Eugène Goyheneche ressent la nécessité d'approfondir sa connaissance de l'histoire du Pays Basque; c'est aussi de cette époque que date la prise de contact avec un mouvement politique qui va marquer profondément toute son existence.

3. Témoignage d'Eugène Goyheneche: Ustaritz, 23 juillet 1987.

La découverte du nationalisme basque.

Pour les Basques comme pour d'autres membres de "minorités nationales" à qui jusqu'à une époque récente, on n'enseignait pas dans les écoles, la langue et l'histoire de leur pays, c'est bien le mot "découverte" qui s'impose.

Non seulement l'éducation officielle refusait d'enseigner la langue et l'histoire du pays, mais elle mettait parfois un soin particulier soit à les déformer, soit à les occulter complètement. Le but était d'enlever leurs racines aux autochtones; lorsque ces derniers se rendaient compte de ce forfait, de ce vol de leur personnalité, ils éprouvaient -comme l'a si bien traduit Morvan Lebesque pour ce qui est des bretons⁴- un sentiment de stupeur, mais aussi d'incroyable injustice.

L'indignation et la révolte cèdent bientôt le pas à l'engagement. Eugène Goyheneche est la parfaite illustration de ce processus.

Les années 1931 et 1932 (il a 16 et 17 ans) sont pour lui les années de la découverte de la patrie basque et de la découverte du nationalisme basque.

En juillet 1932, il rencontre José de Ariztimuño, l'inoubliable *Aitzol*, à l'occasion du Congrès des Txistularis qui eut pour cadre les premières Fêtes de Bayonne. Dès lors, il épouse étroitement l'idéologie du P.N.V., intervient dans ses meetings et collabore à ses quotidiens *El día* de Saint-Sébastien et *Euzkadi* de Bilbao; il se lie d'une solide amitié avec de nombreux militants de ce parti, notamment avec plusieurs membres de la puissante organisation de jeunesse *Juventud Vasca - Euzko Gastedija* de Bilbao.

Depuis l'automne 1932, il est étudiant à Paris; cependant, il est en étroit contact avec les militants eskualerristes d'Iparralde qui durant l'été, avaient

4. Morvan Lebesque: *Comment peut-on être breton? Essai sur la démocratie française*, Editions du Seuil, 1970.



tenu autour de l'abbé Pierre Lafitte, leurs premières réunions à Saint-Jean-de-Luz.

Il passe d'ailleurs toutes ses vacances universitaires à Ustaritz; il est étroitement associé à la naissance du mensuel *Aintzina*, organe du mouvement eskualerriste, dont le premier numéro voit le jour en octobre 1934. Ses amis d'Iparralde ont nom Jean-Pierre Urricarriet déjà évoqué, Jacques Mestelan de Lahonce, Pierre Amoçain qui sera forcé à l'exil au Chili à la fin de l'année 1934 ou encore Michel Diharce, *Pinchin*, le frère aîné du poète Iratzeder. Son discours lors de l'assemblée générale annuelle de l'association *Eskualzaleen Biltzarra* -qui se tient à Louhossoa le 14 septembre 1933- est particulièrement remarqué.

Cependant, son activité en Pays Basque n'est qu'un des aspects de son travail militant. Durant les années précédant la seconde guerre mondiale, son action s'exerce essentiellement à Paris.

Les années d'étudiant à Paris.

Eugène Goyheneche déploiera dans la capitale française une grande activité militante: militantisme basque bien sûr mais également contacts avec le mouvement fédéraliste et relations suivies avec des militants d'autres minorités nationales, essentiellement bretons. C'est de loin- le plus clair de son temps qui est consacré à son action de militant basque; il étudie en profondeur l'histoire basque et expose immédiatement ses fraîches connaissances dans de multiples conférences à ses amis basques et à ses amis bretons.

Si sa connaissance de l'histoire basque se fait de plus en plus précise, son cursus universitaire est pour le moins perturbé: comment en avait-il pu être autrement, au milieu de cette activité débordante "tous azimuts"? C'est dans ces années 30 qu'il sacrifia délibérément une carrière universitaire qui aurait pu être exceptionnellement brillante. Koldo Mitxelena -lors de la réception d'Eugène Goyheneche en tant que Docteur *Honoris Causa* de l'Université du Pays Basque en mai 1982- insistera sur ce point et lui rendra hommage: hommage d'un militant à un autre militant!

En fait, installé dans une chambre d'un petit hôtel en plein coeur du Quartier Latin, Rue Gay Lussac, Maître d'études à l'Ecole Bossuet, rue Guynemer durant deux années scolaires (1933-1935), il est le témoin privilégié des événements qui secouent (le mot est loin d'être trop fort) la capitale: 6 Février 1934, avènement du Front Populaire, répercussions de la guerre civile espagnole, Munich, jusqu'à la déclaration de guerre à l'Allemagne de septembre 1939.

Ses études passent largement au second plan: après une tentative à la Faculté de Droit, il s'inscrit à la Sorbonne en Licence d'Histoire. Mais ce n'est que 5 ans après son arrivée à Paris, qu'est "accroché" le premier certificat d'études supérieures: "Histoire du Moyen-Age" en novembre 1937; suivent en juin 1938 "Etudes Littéraires Classiques" et en novembre de la même année, "Histoire Moderne et Contemporaine" et l'entrée à la prestigieuse Ecole des Chartes.

A la Sorbonne et à l'École des Chartes, de grands professeurs le marquent profondément: tout d'abord, le médiéviste Louis Halphen (1880-1950), professeur depuis 1934 à la Faculté des Lettres, auteur d'une *Introduction à l'Histoire* (Paris, PUF, 1946) et d'une formule: "Le bon historien est successivement de tous les temps et de tous les pays" qui lui plaît bien plus que celle de Fénelon: "L'historien ne doit être d'aucun temps, ni d'aucun pays"; ensuite, Charles Samaran (1879-1982) prestigieux professeur à partir de 1933 à l'École des Chartes et directeur des Archives de France. Et comment ne pas mentionner également son ami historien de l'art, Elie Lambert (1888-1961)⁵ et son "maître socratique en sciences basques", Georges Lacombe (1879-1947).

En février 1933, lors de l'assemblée constitutive de l'*Eskual Ikasleen Biltzarra* (Association des Etudiants Basques) il est élu Président. EIB (... de Paris) est une association affiliée à la Fédération des Etudiants Basques, *Euzko Ikasle Batza*, dont le siège est à Bilbao; si ses statuts précisent qu'elle n'a pas de tendance politique, il est cependant prévu qu'elle "s'associera en toute occasion à l'actuel mouvement de Renaissance Basque"; en mai 1933, le siège est transféré au Club de Pelote Basque de Paris, Rue de la Cavalerie, 7ème étage où est installé le trinquet de la capitale. Dans la rubrique du quotidien *Euzkadi* consacrée aux étudiants, rubrique intitulée *Ikasle Ingoskija*, Eugène Goyheneche écrira plusieurs articles, rendant compte des activités des étudiants basques de Paris.

Cette même année 1933, est fondée la Section Parisienne de l'association *Eskualzaleen Biltzarra* qui s'installe en janvier de l'année suivante au n° 3 de la rue du Dragon dans le VI^e arrondissement, à deux pas de Saint-Germain-des-Près, où une permanence quotidienne est assurée; c'est dans ce local de la rue du Dragon que s'effectue dans les années 30, une propagande importante concernant les idées basquistes; le jeune *uztaritzar* y prend naturellement part.

Autre événement important pour la vie de la colonie basque de la capitale française: la parution à compter de juillet 1934 par les soins de la section Parisienne d'*Eskualzaleen Biltzarra* de *Elgar - Journal des Basques de Paris*; Paul de Rocca-Serra (Legaralde) et son cousin Carlos d'Orcasberro sont les véritables chevilles ouvrières de cette publication qui se voulait mensuelle

5. Eugène Goyheneche: "L'oeuvre de M. Elie Lambert et l'Histoire basque", *Gure Herria*, 1959, n° 6, p.341-349.

mais qui fut très irrégulière (dernier numéro: n° 10, juin 1936). Eugène Goyheneche écrira quelques articles dans Elgar mais il ne s'identifie pas totalement à une idéologie qui certes se présente comme un journal sympathisant du nationalisme basque, mais d'un nationalisme très modéré et très conservateur, conçu et pensé par des personnes d'un âge mûr ou avancé, fort différent sur ce plan des idées des jeunes eskualerristes.

